



ARABAN KUDEAKETA AURRERATUKO PROIEKTUAK SUSTATZEKO PROGRAMA
INNOBIDEAK-KUDEABIDE PROGRAMA 2026

Eskatzeko epea (8. art.)		Aplikazio eremua eta proiektuak egiteko epea (5. art.)
Eskaerak aurkezteko epea 2026ko martxoaren 17an hasiko da eta 2026ko irailaren 30ean bukatuko da.		Proiektuak ALHn ezarri beharko dira. 2026an hasi beharko dira, laguntza eskaera aurkeztu ondoren, eta amaitu, aldiz, hasi eta hamabi hilabete naturaleko epean, eta, betiere, 2027ko urriaren 1a baino lehen.
Xedea (1. art.)	Kudeaketa hobetzeko proiektuak laguntzea, kudeaketa aurreratuaren ereduarekin bat datozenak eta Arabako enpresen lehiakortasuna hobetzen dutenak.	
Entitate onuradunak (3. art.)	5 langile eta 50 langile baino gutxiago artean dituzten Arabako enpresak, baldin eta Euskalitek egindako hasierako kontrasteko txostena indarrean badaukate eta kudeaketa aurreratuaren ekintza plan zehaztu bat aurkezten badute. Ekintza plan horretan kontrastean identifikaturiko hobekuntza arloetako kudeaketa finkatzeko proiektuaren bat jaso beharko da. Horrez gain, erakunde onuradunek honako betekizun hauek bete beharko dituzte: - Sozietatearen egoitza eta zerga egoitza Araban edukitzea edo lurraldean gutxienez ekoizpen edo zerbitzu zentro bat edukitzea. - Jarduera ekonomikoen zergaren epigrafe hauetakoren batean jarduera ekonomikoak egitea: Enpresa jarduerak: 1, 2, 3, 4, 504, 62,69, 7, 84 eta 9 taldeak. - Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.	
Diruz lagundu daitezkeen jarduerak (4.1. art.)	Diruz lagundu ahalko dira kudeaketa aurreratuaren hasierako kontraste txostenarekin bat datozen eta erakunde eskatzailearen kudeaketa aurreratuaren ekintza planean jasotzen diren finkatze proiektuak (2B proiektuak).	
Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta diruz lagundu ezin direnak (4.2. art.)	Diruz lagundu ahalko dira kanpoko enpresak edo profesional autonomoak kontratatze egindako gastuak, kudeaketa hobetzeko aurkeztutako proiektuaren aholkularitza jarduerak egiteko erabili badira. Diruz lagundu ezin diren gastuak: - Balio erantsiaren gaineko zerga - Kanpoko enpresako langileen joan-etorrien gastuak - Materialak prestatzeko gastuak - Aretoen alokairua - Dietak eta antzekoak - Enpresa eskatzailearen barruko langile gastuak	
Laguntzen zenbatekoa (6. art.)	Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa: 10.500,00 euro % 70ko dirulaguntza Gutxienezko dirulaguntza: 1.500,00 euro	
Araudia eta laguntzak emateko araubidea	Martxoaren 6ko 81/2026 Foru Agindua. ALHAO 2026ko martxoaren 16a, astelehena . 32zk. https://www.araba.eus/botha/Boletines/2026/032/2026_032_00675_E.pdf Dirulaguntzak lehia askea bidez emango dira (9. art.).	